

**FITXA: 221 - BIZKAIA** - Bizkaiko Foru Aldundiaren errepide-sareko errepideekin lotzen diren udal-titulartasuneko sarbideen bide-segurtasuna hobetzeko proiektuak idaztea.

**Nori zuzendua:** Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak.

**Deialdia:** BAO - Bizkaiko Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/04/07  
Ofiziala

**Sarbide-esteka:**

<https://appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

**Erreferentziazko araudia:** Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakia, 2026ko martxoaren 26koa. -

[https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao\\_bob/2026/04/07/I-375\\_eus.pdf](https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/04/07/I-375_eus.pdf)

**Eragin eremuak:** Udal azpiegiturak

**Zenbatekoa:** 200.000,00 €

**Aurkezteko lehen eguna:** 2026/04/08

**Aurkezteko azken eguna:** 2026/05/07

**Aurrerakina:** Ez da zehaztu

**Aurrerakinaren gehieneko %a:** Ez da zehaztu

**Gehieneko zenbatekoa:** Laguntza jaso duen proiektu-proposamen bakoitzeko diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoa 40.000 eurokoa izango da.

**Gutxieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu

**Tramitazioa:** Norgehiagoka.

## Laburpena

Bizkaiko Foru Aldundiaren errepide-sareko errepideekin lotzen diren udal-titulartasuneko sarbideen bide-segurtasuna hobetzeko proiektuak idaztea.

## Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagun daitezkeen proiektuek zuzenean eta eraginkortasunez lagundu beharkodute Bizkaiko Errepideen Foru Sareko bide-segurtasuna hobetzen.

## **Jarduera-ildoak**

Ez da zehaztu.

## **Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak**

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektuen idazketari zuzenean lotutako ordainsariak eta gainerako kostuak, deialdiaren ekitaldiko urtarrilaren 1etik aurrera sortu eta fakturatzen direnean. gauzatzen bada.

## **Gastuetarako aldi hautagarria**

Deialdia egin eta hurrengo urteko martxoaren 31 baino beranduago ez den dataz emango da proiektua idazteko kontratua esleitzeko ebazpena, edo, kontratu txikien kasuan, gastua xedatzeko dokumentua.